

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure izenak Leire Aranzacistroqui, Anne Eizmendi, Aitana Orbegoza, Elene Saizar eta Ane Irazusta dira, eta Santo Tomas Lizeoa ikastolako Batxilergo 2. mailako Ekonomia eta Enpresako ikasleak gara. Startinnova programaren barruan, enpresa proiektu berritzaile bat garatu dugu, ikasturtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko eta gure sormena lantzeko helburuarekin.

Gaur egungo gizartean oso ohikoa da jendetza handiko espazioetan, hala nola festibaletan, kontzertuetan, jai herrikoietan edo hondartzetan, lagunak edo familiako kideak galtzea. Egoera horiek estres handia sortzen dute eta pertsonak denbora asko galtzea eragiten dute. Arazo nagusia litzateke gaur egun dauden irtenbide gehienek smartphoneak eta erloju digitalak, besteak beste aplikazioak eta internet konexioa behar dituztela, eta horiek askotan ez dutela funtzionatzen jendetza handiko guneetan, konexioa saturatzen delako edo gailuen bateriak agortzen direlako. Egoera hau are larriagoa da umeen kasuan, segurtasun falta eta kezka handia sortzen duelako gurasoentzat eta beraientzat.

Arazo horri irtenbidea emateko, sentsore bidez funtzionatzen duen pultsera adimendun bat sortzea pentsatu dugu. Pultsera honek erloju baten antza du eta barruan sentsore sistema bat dauka. Ez du pantaila digitalik, baina aktibatzen denean zortzi gezi agertzen dira, erabiltzailea gertuen duen lagun edo familiarren norabidera bideratzeko. Geziak piztu eta itzaltzen dira, jarraitu beharreko norabidea adieraziz, eta horri esker pertsonak modu errazean elkartzea ahalbidetzen du.

Pultsera honek ez du mugikorrik, aplikaziorik edo internet konexiorik behar, eta horrek oso erabilgarria bihurtzen du jendetza handiko espazioetan. Gainera, erabilera oso erraza eta intuitiboa du, edozein adinetako pertsonentzat egokia izanik. Diseinuari dagokionez, modelo estandar bat egongo da, baina pultserak pertsonalizagarriak izango dira, materialak, koloreak eta estiloa aukeratzeko aukerarekin, tresna praktikoa izateaz gain modako osagarri bihurtuz.

Gure negozio ideiaaren balio-proposamena segurtasuna, lasaitasuna eta erosotasuna eskaintzea da. Pultsera adimendun honi esker, jendetza handiko egoeretan pertsonak modu azkar, erraz eta seguruan aurkitzeko aukera izango dute. Gurasoek lasaitasun handiagoa izango dute umeak galtzen direnean, eta gazteek, berriz, festetan edo kontzertuetan lagunekin berriz elkartzeko aukera izango dute estresik gabe.

Enpresa publiko nahiko zabal bati zuzenduta dago. Alde batetik, festibal, kontzertu eta jaietara joaten diren gazte eta heldu gazteei, bestetik, familiei eta umei, hondartzetan edo ekitaldi jendetsuetan galtzeko arriskua handiagoa delako. Bezero segmentu bakoitzarentzat kanal desberdinak erabiliko dira, hala nola festibaletan salmenta zuzena, modelo estandarra Amazonen bidez saltzea eta modelo pertsonalizatuak webgunearen bidez eskaintzea.

Esparru geografikoari dagokionez, hasieran Madrilan eta Bartzelonan jarriko da martxan proiektua, batez ere festibaletan, merkatu eta jende aniztasun handia dagoelako. Arrakasta lortuz gero, pixkanaka Espainiako beste hiriburuetara zabalduko da, eta epe luzera beste herrialde batzuetara ere iristea aurreikusten da, hala nola Italia, Frantzia edo Estatu Batuetara.

Proiektua martxan jartzeko beharrezko finantziakzioa inbertitzaileen bidez lortuko da, haiek irabazien portzentai bat jasoz. Diru-sarrerak pultseren salmentetatik lortuko dira. Bestalde, kostu nagusiak diseinu eta garapen teknologikoa, ekoizpena, marketina, logistika, banaketa eta langileen kontratazioa izango dira.

Ondorioz, gure enpresa proiektua bideragarria eta berritzailea da, arazo erreal bati irtenbide eraginkorra ematen diolako, teknologia sinplea eta diseinu erakargarria uztartuz.